




HIRI HONDAKIN SOLIDOAK: ESPAINIAKO 18 HIRITAN NOLA BILTZEN ETA KUDEATZEN DITUZTEN AZTERTU DUGU

AZTERTU DITUGUN 18 HIRIETATIK, IRUÑEAK ERAKUTSI DU ARDURA GEHIEN HIRI HONDAKIN SOLIDOAK BIRZIKLATZEKO LANEAN ETA ZAZPI UDALEK EZ DIGUTE JAKINARAZI ZENBAT HONDAKIN BIRZIKLATZEN DUTEN, DATURIK EZ DAUKATELAKO. HIRI HAUETAKO BIZTANLEEK DUELA LAU URTE BAINO HONDAKIN GEHIAGO SORTU ZITUZTEN 2008AN, BOST MILIOI TONA, IA % 4 GEHIAGO

Gero eta zabor
gehiago sortzen
da eta udal batzuek
ez dakite zenbat
birziklatzen den



Hondakinen gaiak bereziki kezkatzen ditu agintariak eta herritarrak. Gero eta gehiago kontsumitzen dugu, eta, ondorioz, gero eta hondakin gehiago sortzen. 1995. urtean, Espainiako herritar bakoitzak 378 kilo hondakin sortu zituen, 2003. urtean, 502 kilo, eta 2007an % 17 gehiago (urtean 588 kilo herritar bakoitzak). Datu horiek Europako batez bestekoaren gainetik jartzen dituzte espainiarrak (522 kilo sortzen du europar bakoitzak urtean). Azken urteetan erruz ugaritu dira erabilera bakarreko ontzi eta bilgarriak, eta horrek ekarri du zabor kopurua etenik gabe handitzea; egun sortzen dugun zabor guztiaren % 60 dira ontzi eta bilgarri horiek, eta pisu guztiaren % 33 hartzen dute. Erabili ahala botatzen jarraitzen badugu, 2020rako hirietan sortzen den zaborra % 50 haziko da. Eta zenbat eta hiri hondakin gehiago sortu, orduan eta aurrekontu handiagoak beharko dira horiek bildu, garraiatu eta tratatzeko; egun jada udal aurrekontuen % 20 hartzen du arlo horrek. Egoera neurri horietaraino iritsi ez dadin, administrazio guztiak (Europakoa, Espainiako Estaturakoa, autonomia erkidegoetakoak eta udalak) arau zorrotzak jartzen hasita daude; besteak beste, Hiri Hondakinen Plan Integrala egin dute. Plan horren helburua da beiraren eta kartoiaren % 70 birziklatzea eta plastikoen % 30. Plana bukatzeko zazpi urteren faltan, ordea (2015ean bukatzen da), ez doa bide ononetik. Hamaika hirik jakinarazi diote CONSUMER EROSKI-ri zenbat zabor birziklatzen duten (beste zazpi ez digute daturik eman, nahiz guk behin eta berriz eskatu), eta batez beste, paper-kartoiaren % 47 birziklatzen dute, pilen % 44 eta ontzien % 18. Egoera, hala ere, asko aldatzen da hiri batetik bestera. Iruñeak eman du emaitzarik onena guztietan, eta esan liteke hiri horixe dagoela gertuen Hiri Hondakinen Plan Integralak ezartzen dituen helburuetatik. Nafarroako hiriburuan beiraren % 53 birziklatzen dute, paper-kartoiaren % 69 eta ontzien % 28.

Oro har, 18 hiri hauetako herritar bakoitzak duela lau urte baino % 2 hondakin gehiago sortu du 2008. urtean (1,32 kilo egunean bakoitzak), eta hiru hirik soilik lortu dute 2004an baino zabor gutxiago sortzea: Bilbo, Granada eta Bartzelona.

Espainiako 18 hiritan hiri hondakinak nola biltzen eta kudeatzen dituzten aztertu du CONSUMER EROSKI-k, eta orain arte esandakoak nabarmendu litezke ondorioen artean. Honako hiri hauetan galdetu dugu: A Coruña, Alacant, Bartzelona, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Granada, Iruñea, Kordoba, Logroño, Madril, Malaga, Murtzia, Oviedo, Sevilla, Valencia, Valladolid eta Zaragoza. Udalek oso informazioa gutxi eman ahal izan digute, eta deigarria gertatu zaigu hori. Deitu eta zazpi hiritan ezin izan digute zehatz esan zenbat hondakin berreskuratzen dituzten, Bartzelonak eta Kordobak 2007ko datuak soilik eman ahal izan dizkigute, Malaga ia kanpo utzi behar izan dugu Udalak



laguntzerik eman ez digulako eta Murtzia azterketatik kanpo geratu da, ez Udalak eta ez zaborra biltzen duen enpresak eman nahi izan digutelako informazioa.

Hiri Hondakinen Plan Integratuak edukiontzi kopuru bat jartzeko agintzen du hiritar multzo bakoitzeko, eta hiririk gehienak gutxieneko kopurua jartzera mugatzen dira: beira-edukiontzi bat 500 biztanle bakoitzeko, paper-kartoiaren edukiontzi bat 500 biztanle bakoitzeko eta ontzien edukiontzi bat 300 biztanle bakoitzeko. Bartzelonak 2007ko datuak soilik eman ditu, eta Madril, Donostia eta Valentzia muga-mugan ibili dira, gutxieneko kopurura iritsi ez iritsi. Iruñea nabarmendu da edukiontzi kopuruan ere, beste guztien gainetik.

Zaborren udal tasa kobratzeko orduan, udal bakoitzak bere sistema dauka, eta horregatik, zaila da elkarrekin alderatzea. Hiri gehienetan urtean behin ordaintzen dute (Sevillan eta Granadan hilero; Bilbon hiruhilabetean behin eta Logroñon urtean bitan), eta kopurua ez da berdina leku guztietan; hiri berean ere guztiek ez dute berdina ordaintzen, alderdi bat baino gehiago hartzen baitituzte kontuan: kaleak zein zerga maila duen, zenbat ur kontsumitzen duen etxe bakoitzak edo etxebizitza zer neurritakoa den. Sevillan, 24 eurokoa da urteko gutxieneko tasa, eta Madrilan, berriz, urtean 190 euro ordaintzera ere iritsi litezke.

ZABOR GEHIEGI

Agintarien helbururik behinena zabor gutxiago sortzeko modua egitea da, baina emaitzetan ez da halakorik ikusten: iaz bost milioi tona hondakin baino gehiago bildu zituzten 18 hiri hauetan (duela lau urte baino % 4 gehiago ia). Guk aztertu ditugun hirien artean, hiruk soilik lortu dute 2004an baino zabor gutxiago sortzea: Bilbo, Granada eta Bartzelona (hurrenez hurren, orduan baino % 6,7, % 4,3 eta % 1,5 zabor gutxiago sortu dute). Sevilla, Malaga eta Logroño daude beste muturrean; horiek 2004an baino % 16,3, % 13,5 eta % 10,8 zabor gehiago sortu dute, hurrenez hurren. Herritar bakoitzak zenbat zabor sortu duen aztertzen badugu, ez dugu aurkituko datu hoberik. 2004an, egunean 1,29 kilo zabor sortu zituen, batez beste, 17 hiri horietako herritar bakoitzak, eta 2008an, 1,32 kilo (hau da, 481 kilo urtean, orduan baino % 2 gehiago). Kordoban eta Sevillan sortzen da zabor gehien herritar bakoitzeko (1,52 kilo eta 1,48 kilo egunean), eta Zaragozan eta Gasteizen gutxien (1,07 kilo egunean). Nabarmenezkoa da beste datu hau ere: Sei hiriburutan ugaritu egin dira biztanleak, baina gutxitu egin da bakoitzak sortu duen zabor kopurua eta Granadan, hiritarrek zein zaborra, biak jeitsi dira. Horien artean, Bilbo aipatu behar da (duela lau urte baino % 7 zabor gutxiago sortu du bilbotar bakoitzak). Bartzelonan eta Granadan % 4 gutxitu da, Zaragozan, Gasteizen eta Alacanten % 3 eta Madrilan % 1. Sevillan, % 7 igo da eta Malaga eta Valladoliden % 10.



2008AN SORUTAKO HIRI HONDAKIN SOLIDOAK*

Hiria	2008an guztira bildu diren hiri hondakin solidoak ⁽¹⁾	HHSen bilakaera, guztira	Kg/biztanle egunean, 2008	Kg/biztanle egunean: lau urteko bilakaera ⁽²⁾
A Coruña	117.067	% 3,1	1,31	2%
Alacant	167.672	% 4,2	1,38	-2%
Bartzelona	861.096	% -1,5	1,46	-4%
Bilbo	178.331	% -6,7	1,38	-7%
Kordoba ⁽³⁾	180.085	% 8,0	1,52	7%
Granada	122.434	% -4,3	1,42	-4%
Logroño	62.683	% 10,8	1,14	5%
Madril	1.590.131	% 2,7	1,36	-1%
Malaga	304.389	% 13,5	1,47	10%
Murtzia	-	-	-	-
Oviedo	94.914	% 7,5	1,18	2%
Iruñea ⁽⁴⁾	153.968	% 9,3	1,25	1%
Donostia	93.815	% 3,9	1,40	3%
Sevilla	378.844	% 16,2	1,48	17%
Valentzia	405.228	% 5,8	1,38	3%
Valladolid	131.236	% 2,2	1,13	10%
Gasteiz	90.565	% 8,1	1,07	-2%
Zaragoza	260.640	% 0,5	1,07	-3%
GUZTIRA	5.193.098	% 3,7	-	-
BATEZ BESTE	305.476	% 3,7	1,32	2%

Biztanle kopurua: INE, 2008ko urtarrilaren 1ean, Espainiako azken errolda. *Datu ofizialak: udaletatik eta hiri bakoitzean aritzen diren enpresetatik lortu ditugu datuak. (1) Hondakin kopurua, tonatan. (2) Aldizkari honek 2004. urtean lortu zituen datuekin alderatu ditugu 2008koak. (3) 2007ko datuak; biztanleen datuak ere urte horretakoak dira (2007ko urtarrilaren 1a). (4) Iruñerriko Mankomunitatea; 338.372 biztanle 2008ko urtarrilaren 1ean.

HAUXE DU GURE ZABOR POLTSAK:

Espanian sortzen den zaborrik gehiena (% 88 inguru) etxeko hondakinak dira, hau da, jendearen etxeetatik edo bestelako egoitza kolektiboetatik (erietxeak eta abar) datozen hondakinak. Hiri Hondakinen Plan Integratuak dioenez, zabor horren ia erdia (% 44) materia organikoak osatzen du, kartoia eta papera datoz gero (%21), plastikoa (% 11), beira (% 7) eta beste hondakin batzuk: egurra, oihalak, pilak... (% 17). Guk aztertu ditugun hirietan, aldiz, besterik erakusten du zabor poltsak: gutxiago ageri dira hondakin organikoak (% 28,8), papera eta kartoia (% 13), ontziak (% 7) eta beira (% 5).

Etxeetatik datorren zaborrik gehiena kaleko edukiontzi finkoetara botatzen da ia hiri guztietan, baina badira salbuespenak ere. Oviedon atariz atari ibili ohi dira zaborra gaika biltzen, eta gero eta hiri gehiagok sistema pneumatikoak ezartzen dituzte auzune berrietan eta erdiguneko zenbait tokitan: postontzi moduko ontzi batek xurgatu egiten ditu hondakinak, eta lurpetik eramanen ditu hondakin-biltegi batera, han sailkatu eta behar den lekura eraman ditzaten.

Edukiontzietako zaborra bildu behar duten langileak iluntzeko zortziak eta bederatzia artean hasi ohi dira poltsak biltzen, eta gaueko hamarrak eta hamabiak artean bukatzen dute. Gauez lan egiteak badu abantaila bat, zirkulazio gutxiago izaten dela, baina ordainetan, zaratarekin arazoak sor daitezke eta eskulan gehiago ordaindu behar izaten da. Hiririk gehienetan egunero-egunero biltzen dute zaborra, Gabon egunean eta Urteberri egunean izan ezik, baina hor ere badira salbuespenak: Granadan ez dute biltzen zaborrik igande eta jaiegunetan (bi jaiegun segidan tokatu ezik), eta Valladoliden, urtean 10 egunetan izaten du jai zaborra biltzeko zerbitzuak.

IRUÑEA EREDU DA

500 biztanle bakoitzeko edukiontzi bat jarri behar da beirarentzat eta beste bat paper-kartoiarentzat, eta 300 biztanle bakoitzeko, ontziak biltzeko beste bat. Helburu horiexek jartzen dizkie udalei Hiri Hondakinen Plan Integralak 2015. urterako. Guk aztertu ditugun hiririk gehienek ongi betetzen dute arau hori (1,84 edukiontzi dituzte beirarentzat 300 biztanle bakoitzeko, eta 1,72 paper-kartoiarentzat), baina zenbait hiririk badute zer hobetua oraindik ere.

Bartzelonak, adibidez. Gainerako hiriek ez bezala, behar baino edukiontzi gutxiago ditu beira eta paper-kartoiak biltzeko, nahiz eta Madril, Donostia eta Valentzia ere ez dabiltzan askoz hobeto: justu-justu iristen dira gutxienera edo gutxiagatik gaintzen dute. Ontziak biltzeko edukiontzietan, Bilbo, Iruñea, Madril, Kordoba eta Sevilla soilik iristen dira gutxienera (edukiontzi bat 300 biztanleko). Zaragoza eta

Granada muga-mugan dabilta (0,93 eta 0,97 edukiontzi 300 biztanleko), eta gainerakoak ez dira heltzen % 80ra ere. Beraz, badute zer egina hurrengo sei urteetan, baldin eta legea bete nahi badute.

Edukiontzien arloan, Iruñeak eta Iruñerriko mankomunitateak du egoerarik onena, alde handiz, gainera. Beira botatzeko 2,90 edukiontzi dituzte 500 biztanle bakoitzeko (legeak bakarrik eskatzen du, baina Bartzelona, adibidez, 0,75ean geratzen da, eta Madril 0,95ean), bost baino gehiago papera botatzeko (Kordoba hurbiltzen zaio gehien; han, 3,56 dituzte 500 pertsonako), eta ontziak botatzeko hiru edukiontzi 300 biztanle bakoitzeko. Azken atal horretan, Sevillak ere erraz gaintzen du arauak ezartzen duen gutxienera (ontziak biltzeko 2,21 edukiontzi ditu 300 biztanleko) eta Kordonak ere bai (3,84 edukiontzi), baina, ororen gainetik, Madril nabarmentzen da: 7 edukiontzi ditu 300 biztanle bakoitzeko, nahiz eta ohikoak baino txikiagoak diren.

Hondakin arriskutsuak edo handiak biltzeko guneak ere badituzte hiri guztiek, salbu eta A Coruña, Kordobak, Oviedok eta Sevillak. Garbigune edo ekoparke deitzen zaie gune horiei (deixalleries katalanez), eta hiri bakoitzak 2 eta 8 artean dauzka, batez beste. Bartzelonak 28 ditu (20 finko eta 8 mugikor) eta Madrilak 20 (15 finko eta 5 mugikor).

GUTXI BIRZIKLATZEN DUGU

Guk aztertu ditugun hirietako biztanle bakoitzak, batez beste, 35 kilo paper eta kartoi sortzen ditu urtean, 15 kilo beira, 13 kilo ontzi eta 0,10 kilo pila.

Sortu bai, badakigu zenbat sortzen den, baina birziklatu? Zenbat birziklatzen da? Ez da batere erraza hori jakitea. Hiri guztietan galdetu dugu horri buruzko informazioa, baina bost hiritan ez dute jakin erantzuten, daturik ez daukatelako (Alacant, Bartzelona, Granada, Malaga, eta Zaragoza, aipaturiko Murtziaren kasuaz gain), eta Kordoban 2007ko datuak soilik eman dizkigute. Gainerakoek erantzun digute, eta datuak ikusita, lan eskerga egin beharko dute hurrengo urteetan Europako legedia bete nahi badute. Europako Parlamentuak 2008an onartu duen zuzentarauak esaten duenez, EBko kide diren herrialdeek hondakin bihurtzen duten paperaren, plastikoaren eta beiraren % 50 birziklatu edo berrerabili beharko dute 2020. urterako. Espainiako Ingurumen Ministerioak eman dituen datuen arabera, Espainia hortik hurbil samar dabil, baina CONSUMER EROSKI-ri informazioa eman dioten 11 hiriak ez: beira-hondakinen % 47 birziklatzen dituzte, paper-kartoiaren % 44 eta ontzien % 18 (duela lau urte baino zertxobait gehiago). Orain ere, orduan bezala, Iruñea nabarmendu da: beiraren % 53 birziklatzen dute (Bilbon ere bai), eta paper-kartoiaren % 70 (Donostia soilik hurbiltzen zaio zertxobait: % 64).



GAIKAKO BILKETA: EDUKIONTZI ETA GARBIGUNE KOPURUA

Hiria	Beira: Zenbat edukiontzi 500 biztanleko	Papera-Kartoiak: Zenbat edukiontzi 500 biztanleko	Ontziak: Zenbat edukiontzi 300 biztanleko (Finkoak/Mugikorak) ⁽¹⁾	Garbigune kopurua: ⁽²⁾
A Coruña	1,14	1,80	Ez dago edukiontzirik	4/0
Alacant	1,54	1,27	0,69	1/2
Bartzelona ⁽²⁾	0,74	0,73	0,43	20/8
Bilbo	1,12	1,31	1,35	4/2
Donostia	1,08	1,10	0,67	1/1
Gasteiz	1,39	1,35	0,79	2/2
Granada	1,30	1,37	0,97	DE
Iruñea	2,90	5,48	3,02	2/2
Kordoba ⁽²⁾	1,15	3,56	3,84	3/0
Logroño	1,44	1,35	0,76	1/2
Madril	0,95	1,26	7,67	15/5
Malaga	DE	DE	DE	DE
Murtzia	DE	DE	DE	DE
Oviedo ⁽³⁾	20 edukiontzi-gune			2/0
Sevilla	1,21	1,37	2,21	4/0
Valentzia	1,03	1,10	0,60	1/3
Valladolid	1,29	1,46	Ez dago edukiontzirik	5/1
Zaragoza	1,19	1,22	0,93	4/4
BATEZ BESTE	1,30	1,72	1,84	5/3

*Iturria: udalak eta udalerrri bakoitzean ari diren enpresak.

*DE: Daturik ez. Udalek eta zaborra biltzen duten enpresek ez digute eman datu hori, nahiz eta behin eta berriz eskatu.

(1) Zenbat garbigune edo ekoparke dauden udalerrri bakoitzean. (2) 2007ko datuak. (3) Oviedon, atez ate egiten dute gaikako bilketa, eta horren lagungarri, 20 edukiontzi-gune dauzkate (edukiontziak lurpean daude).

BILDU DENETIK ZER PROPORZIO BIRZIKLATZEN DA⁽¹⁾

Hiria	Beira	Papera eta kartoiak	Ontziak	Materia organikoak ⁽²⁾	Pilak
A Coruña	Paper-kartoiak, beira, aluminioa, tetra-brik-ak eta altzairua: %16				DE
Alacant	DE	DE	DE	DE	DE
Bartzelona	DE	DE	DE	DE	DE
Bilbo	% 53	% 51	% 15	% 3	% 15
Donostia	% 62	% 64	% 21	DE	DE
Gasteiz	% 51	% 40	% 22	% 12	DE
Granada	DE	DE	DE	DE	DE
Iruñea	% 53	% 69	% 28	% 17	% 68
Kordoba	DE	DE	DE	% 43	DE
Logroño	% 54	% 36	% 20	DE	DE
Madril	% 50	% 29	DE	% 14	DE
Malaga	DE	DE	DE	DE	DE
Murtzia	DE	DE	DE	DE	DE
Oviedo	DE	% 12	DE	DE	DE
Sevilla	% 30	% 22	% 15	% 15	% 42
Valentzia	% 44	% 31	% 22	% 21	% 24
Valladolid	% 31	% 55	% 3	% 22	DE
Zaragoza	DE	DE	DE	DE	DE
BATEZ BESTE	% 47	% 44	% 18	% 18	% 37

(1) Iturria: Udalak eta udalerrri bakoitzean ari diren enpresak. 2008. urtea.

(2) Kosposta eginez berreskuratzen den materia organikoa da.

*DE: Daturik ez. Udalek eta zaborra biltzen duten enpresek ez digute eman datu hori, nahiz eta berriz eskatu.

ETA MATERIA ORGANIKOA?

Materia organikoa ere birziklatu daiteke, eta konposta sortu. Lurra ongarrizko erabiltzen da konposta, elikagaiak eta oliogoelementuak ematen baitizkio. Materia organikoa egoki birziklatu ahal izateko, zaborra gaika biltzeko sistema bat ezarri beharko litzateke eremu oso batean, eta herritarrei eskatu beharko li-tzaieke bereizita jar ditzatela janari hondarrak eta lorategietakoak (konpostatu daitezkeen poltsetan, ahal izanez gero), eta edukiontzi gris edo marroietara bota ditzatela. Horrez gain, konpostari etekina aterako liokeen merkatu bat egon behar luke, lorategietan eta parkeetan erabiltzeko. Guk bildu ditugun datuek, ordea, hortik oso urrun gaudela erakusten dute. Hiririk gehienek badute konposta egiteko plantaren bat (Oviedok, Malagak eta Granadak ez digute informaziorik eman), baina oso gutxi daukate sistema bat materia organikoa bereizita biltzeko. Oraingoan, Valentziak, Iruñeak, A Coruña, Valladolidek Bartzelonak eta Donostiak egiten dute hori (Donostian proiektu pilotu moduan). Batez beste, materia organikoaren % 18 soilik birziklatzen dute, eta Hiri Hondakinen Plan Nazional Integratuak % 50 birziklatzea jartzen du helburu. Kordoba soilik hurbiltzen da kopuru horretara: zabor organikoaren % 43 birziklatzen dute han.

UDAL TASAK

Txosten honetan aztertu ditugun hiririk gehienetan, urtean behin kobratzen dute zaborraren tasa. Salbuespenak ere badira, ordea: Valladolidek eta Malagak ez dute kobratzen zabor tasa zerga bereizi moduan, Bilbon hiru hilez behin kobratzen dute, Granadan eta Sevillan hilero eta Logroñon urtean birritan. Donostian tarifa bakarra dago hiritar guztientzat (109,03 euro urtean), baina gainerako guztiek hainbat alderdi hartzen dituzte aintzat tarifa hori ezartzeko orduan: kaleak zein zerga maila duen (A Coruña, Bilbon, Kordoban eta Logroñon), etxebizitzak zer katastro-balio duen (Madrilen eta Iruñean), edo zenbat ur kontsumitzen duten etxean (Sevillan eta Bartzelonan). Baldintza horien arabera, zergaren prezioak asko alda daitezke. Madrilen, adibidez, 4 euro ordaintzen dute batzuek eta 190 euro beste batzuek, eta Logroñon, 20 eurotik 125 eurorainoko aldea dago. Azken lau urteetan, % 10 eta 22 artean igo dira udal tasak; Zaragozan, aldiz, % 15 jaitsi dira, eta Donostian izugarri garestitu (% 90 baino gehiago). Hiri Hondakinen Plan Nazional Integralak/Integratuak honako irizpide hau erabiltzea proposatzen du tarifa ezartzeko: bakoitzak zenbat hiri hondakin sortzen duen, hainbeste ordain dezala. //



A CORUÑA

Zaborraren tasa: urtean 58,69 eta 66,86 euro artean, kaleak zein zerga maila duen.

- + Edukiontzien araudia ongi betetzen du, 500 biztanle bakoitzeko edukiontzi bat baitu beirarentzat eta ia bi paper-kartoiarentzat.
- Ontziak bereiz biltzeko edukiontzirik ez dago, eta ekoparke edo garbigune mugikorrik ere ez.



GRANADA

Zaborraren tasa: hilean 4,72 euro gutxienez eta 11,06 gehienez, kaleak zein zerga maila duen.

- + 2004an baino % 4 zabor gutxiago sortu dute 2008an, eta udal tasa % 3 soilik igo da (batez beste, % 16ko igoera izan du).
- Ez digute jakinarazi zenbat zabor birziklatzen duten. 300 biztanle bakoitzeko 0,97 edukiontzi soilik ditu plastikoen zat. Igande eta jaiegunetan ez dute zaborrik biltzen.



MURZIA

Zaborraren tasa: 18,50 euro bi hilabeterik behin.

- + Udalak eta zerbitzua kudeatzen duten enpresak informaziorik ez dutenez eman, ezin ezer onik azpimarratu.
- Udalak eta zerbitzua kudeatzen duten enpresak informaziorik ez dute eman, ez batzen den zaborraren daturik, ez birziklatzen den zaborrarenik.



ALACANT

Zaborraren tasa: urtean 20,38 eta 51,79 euro artean, kaleak zein zerga maila duen eta etxea zer neurritakoa den.

- + 2004-2008 artean populazio igo bada ere, zabor kopurua % 2 jeitsi da.
- Ontziak biltzeko edukiontzietan eskas dabil: 0,69 ditu 300 biztanle bakoitzeko. Zenbat hondakin birziklatzen duten eta materia organikoa nola kudea-tzen duten galdetu eta ez digute informaziorik eman.



IRUÑEA

Zaborraren tasa: 32,73 eta 94,54 euro artean, etxebizitzak zein katastro-balio duen.

- + GGainerako hiriek baino edukiontzi gehiago dituzte hondakin biltzeko eta gainerakoek baino hondakin gehiago berreskuratu eta birziklatzen dituzte.
- 2004tik 2008ra, igo egin da zabor kopurua: % 9 gehiago sortu dute.



OVIEDO

Zaborraren tasa: urtean 65 eta 68 euro artean, bakoitzak zenbat birziklatzen duen.

- + Hiri honetan soilik biltzen dute zaborra atez ate. Etxe etxeko bilketaren osagarri, 20 edukiontzi-gune daukate hirian (lurpean geratzen dira edukiontziak).
- Ez digute jakinarazi zenbat hondakin berreskuratzen edo birziklatzen dituzten. 2004an baino % 7 zabor gehiago sortu dute 2008an.



BARTZELONA

Zaborraren tasa: etxebizitza bakoitzak dauzkan ur hargu-neen arabera da.

- + Zenbait tokitan, sistema pneumatikoa dute. Duela lau urte baino % 1,5 hondakin gutxiago sortu dituzte. Garbigune gehien dituen hiria da (deixalleries katalanez): 28.
- Legeak agintzen duen baino edukiontzi gutxiago hondakinak gaika biltzeko. Zenbat hondakin birziklatzen duten eta materia organikoa nola kudeatzen duten ez digute esan.



KORDOBA

Zaborraren tasa: 43,87 eta 153,37 euro artean, kaleak zein zerga maila duen.

- + Legeak agintzen duen baino edukiontzi gehiago paper-kartoiak eta ontziak biltzeko. Materia organikoaren % 43 konpost bihurtzen dute.
- Hiri honetan sortzen da zabor gehien (egunean 1,52 kilo herritar bakoitzak). Udalak ez digu jakinarazi zenbat hondakin birziklatzen duten.



SEVILLA

Zaborraren tasa: 2,02 euro gutxienez eta 24,12 euro gehienez, etxe bakoitzean zenbat ur kontsumitzen duten.

- + Ontziak biltzeko 2 edukiontzi ditu 300 biztanleko (legeak agintzen duen halako bi).
- Hondakin gutxien berreskuratzen edo birziklatzen duen hiria da (beiraren % 30 eta paper-kartoi % 22). 2004tik 2008ra, % 16 zabor gehiago sortu dute.



BILBO

Zaborraren tasa: 40,16 euro gutxienez eta 169 gehienez, kaleak zein zerga maila duen.

- + 2008an % 7 zabor gutxiago sortu dute 2004an baino, eta beiraren % 53 berreskuratu. 6 garbigune ditu, hondakinak biltzeko sistema pneumatikoa duten tokiak, eta edukiontzi kopuru egokia.
- Bilbotar bakoitzak 1,38 kilo zabor sortzen du egunean, eta batez bestekoa 1,32 kilo-koa da. Materia organikoaren % 3 soilik bihurtzen dute konpost.



LOGROÑO

Zaborraren tasa: 4,72 euro gutxienez eta 11,06 gehienez, kaleak zein zerga maila duen.

- + Herritar bakoitzak 418 kilo zabor sortzen ditu urtean, batez bestekoa baino gutxiago.
- 2008an % 11 zabor gehiago sortu dute 2004an baino. 0,76 plastiko edukiontzi soilik, 300 biztanleko bakoitzeko. Ez digute esan materia organikoa nola kudeatzen duten.



VALENTZIA

Zaborraren tasa: Ondasun Higiezin Zergari atxikia joan ohi da.

- + Paper-kartoiak biltzeko edukiontzi bat du 500 biztanle bakoitzeko, eta hiru ekoparke mugikor. Biltzen den beiraren % 44 berreskuratzen dute.
- Ontziak biltzeko edukiontzi kopuruan eskas dabil: 0,60 baino ez ditu 300 biztanleko. Ia % 6 zabor gehiago sortu dute 2004tik 2008ra.



DONOSTIA

Zaborraren tasa: urtean 109,03 euro.

- + Beiraren % 62 eta paper-kartoi % 64 berreskuratzen dute. Zaborra biltzeko sistema pneumatikoa daude hiriko zenbait tokitan, eta beste zenbaitetan, atez ate biltzen dute.
- Ontziak biltzeko 0,67 edukiontzi ditu 300 biztanle bakoitzeko. Beira biltzeko edukiontziak, legeak agintzen duen kopuruan justu: 1,08 ontzi 500 biztanleko.



MADRIL

Zaborraren tasa: urtean 4 eta 190 euro artean, etxebizitzak zein katastro-balio duen.

- + Beiraren % 50 berreskuratzen du. Ontziak biltzeko 8 edukiontzi ditu ia, 300 biztanleko.
- Beira biltzeko edukiontziak eskas ditu: legeaz, 1 eduki behar luke 500 biztanleko bakoitzeko, baina 0,95 ditu.



VALLADOLID

Zaborraren tasa: ez dauka.

- + Materia organikoaren % 22 bihurtzen dute konpost. Beira eta paper-kartoiak biltzeko edukiontzi bat du 500 biztanle bakoitzeko (legeak hala agintzen du), eta 5 ekoparke finko.
- Ontziak bereiz biltzeko edukiontzirik ez dago. Zaborra biltzen duen enpresak urtean 10 egunez hartzen du jai, eta zaborrik ez du biltzen.



GASTEIZ

Zaborraren tasa: 43 eta 73 euro artean, zer neurritakoa etxebizitza den.

- + Hiri honetan sortu dute zaborrik gutxien 2008an, eta hiritar bakoitzak sortu duen zabor kopurua ere txikiena izan da: 1,07 kilo egunean. Beiraren % 51 berreskuratzen dute. Zaborra biltzeko sistema pneumatikoa zenbait tokitan.
- Ontziak biltzeko 0,79 edukiontzi soilik dauka 300 biztanleko.



MALAGA

Zaborraren tasa: ez dauka, 2001ean kendu zuten.

- + Udalak eta zaborra biltzen duen enpresak ez digute daturik eman, eta ezinezkoa zaigu ezer onik esatea.
- Udalak eta zaborra biltzen duen enpresak ez digute jakinarazi zenbat hondakin sortzen diren eta horietatik zenbat berreskuratzen edo birziklatzen dituzten. 2004an baino % 13 zabor gehiago sortu dute 2008an.



ZARAGOZA

Zaborraren tasa: 29,99 eta 33,02 euro artean, etxebizitza bakoitzak zenbat ur kontsumitzen duen.

- + 2004tik % 0,5 soilik igo da hondakin kopurua. Bilketa sistema pneumatikoa auzorik berrienetan.
- Ontziak biltzeko 0,93 edukiontzi 300 biztanleko. Ez digute esan zenbat hondakin berreskuratzen dituzten eta materia organikoa nola kudeatu duten.